

VII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (A)

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
egizu, zure erakutsiak beti gogoan erabiliz,
hitzez eta egitez zure nahia bete dezagula.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Leb 19, 1-2. 17-18

Maita ezazu lagunurkoa, zeure burua bezala.

Lebitarren liburutik

Jauna honela mintzatu zitzaion Moisesi: «Hitzegin Israelgo semeen batzar osoari, eta esan: "Izan zaitezte santu, Ni, Jauna, zuen Jaungoikoa, santu naiz eta.

Ez eduki bihotzean gorrotorik zure senidearentzat; zentzarazi zure ahaidea, haren bekatuen erantzukizunik izan ez dezazun. Ez egin mendekurik, ez izan erresuminik zure ahaideentzat. Maita ezazu lagunurkoa, zeure burua bezala. Ni naiz Jauna"».

ERANTZUN SALMOA: Sal 102, 1-2. 3-4. 8 eta 10. 12-13

R/. Errukior da Jauna, eta kupibera.

Ene arima, goretsazu Jauna,
neure barren osoak Haren izen deuna.
Ene arima, goretsazu Jauna,
eta ez ahaztu Hark zuri egina. R/.

Hark barkatzen baititu zure hobenak,
sendatzen zure gaitzak denak;
begiratzen du heriotzatik zure bizia,
ematen dizu buruntzat grazia eta errukia. R/.

Errukior da Jauna, eta kupibera,
berant-haserre eta guztiz onbera.
Ez diardu gurekin gure hobenen neurria,
ez digu ordaintzen geure erruen harira. R/.

Sortalde-sartaldeak urrun baitaude elkarrengandik,
hain urrun bidaltzen ditu gure gaiztakeriak gugandik.
Aita bere seme-alabetaz errukitu ohi den bezala,
beldur diotenentzat errukidun da Jauna. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ko 3, 16-23

*Dena zuena da, zuek Kristorenak,
eta Kristo Jaungoikoarena.*

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Ez al dakizue, Jaungoikoaren etxe zaretela eta Jaungoikoren Espiritua zuengan bizi dela? Jaungoikoaren etxea hondatzen duena, Jaungoikoak hondatu egingo du. Jaungoikoaren etxea santua baita; etxe hori, berriz, zuek zarete.

Ez beza inork bere burua engaina. Zuen artean norbainmundu honetan jakintsu delakoan badago, egin bedi zoro, jakintsu izateko; mundu honetako jakinduria, zorakeria baita Jaungoikoaren aurrean.

Hala dago, izan ere, idatzia: «Hark bere maltzurkerian harrapatzen ditu jakintsuak». Eta beste behin: «Jaunak ezagutzen ditu jakintsuen burutapenak, eta badaki huskeria direla».

Ez bedi, beraz, inor gizakiengan harro; zuena baita dena: Paulo, nahiz Apolo, nahiz Pedro; bai mundua, bai bizia, bai heriotza; bai oraingoa, bai gerokoa; dena zuena da, zuek, ordea, Kristorenak, eta Kristo Jaungoikoarena.

EBANJELIOA: Mt 5, 38-48

Aleluia: 1 Jn 2, 5a

R/. Aleluia.

V/. Kristoren hitza betetzen duenarengan,
Jaungoikoaren maitasuna betea dago
egi-egiaz. R/.

Maita itzazue zeuen etsaiak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zien bere ikasleei: «Entzuna duzue nola dagoen agindua: "Begiari, begia; hortzari, hortza". Nik, ordea, hau diotsuet: ez egin gogor, gaitz egiten dizunari. Baizik eta norbaitek eskuineko masailean jotzen bazaitu, eskain iezaiozu bestea ere. Auzitara eramanez eta jantzia kendu nahi dizunari, emaiozu soingainekoa ere. Norbaitek mila pauso ibilerazi nahi zaituela, zoaz bi mila berarekin. Eskean datorkizunari, emaiozu; eta, zuk dirua aurreratzea nahi lukeenari, ez eman atzea.

Entzuna duzue nola dagoen agindua: "Maita ezazu zeure lagunurkoa, eta gorrota zeure etsaia". Nik, ordea, hau diotsuet: maita itzazue zeuen etsaiak; egin on, gorrotoa dizuetenei, eta egin otoitz erasotzen zaituztenentzat, zeruetan dagoen zuen Aitareen seme eta alaba izan zaitezten; Hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia; eta zuzenentzat eta okerrentzat egiten euria. Izan ere, maite zaituztenak maite izanik, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue zor ez duzuenik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, on-onak, zeruetako zuen Aita on-ona den bezala».

Oparigaien gainekoa

Zure misterioa bihotz berriz ospatuz, Jauna,
apalik eskatzen dizugu:
zure haunditasunaren osperako eskaintzen duguna
gure salbamenerako izan dadila.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna, Meza honetan
gure salbamenaren agiria eman diguzu;
egizu, egunen batetan salbamen hori
bere betean irits dezagula.
Jesu Kristo.